



TESIS DOCTORAL

GORPUTZETIK GORPUTZERA. ARTXIBOAK ERAKUSKETA ARETOETAN

GARAZI ANSA ARBELAIZ

Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

garazi.ansa@gmail.com

<https://orcid.org/0000--0003-0592-0511>

Directora de la tesis: **Haizea Barcenilla García**

Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Fecha de lectura: **30/10/2020**

Link de la tesis en ADDI: no disponible

Artearen esparruan saiakera asko burutu dira posizionamendu feministetaik habiatuta ofizialtzat jotako narrazio hegemoniko zein patriarkalak zalantzan ipintzeko. Azken hamarkadetan joera honi komisariotzaren esparrutik burututako ekimenak gehitu zaizkio, maiz gainera, artxiboaren *modus operandia* erakusketa metodo gisara erabili izan delarik. Eta hain zuzen ere, ikerketa honetan azken joera hau aztertu dut. Tipología honen gako eta ezaugarrietan erreparatu naiz, baina bereziki gure pentsaera egituratzen duten ideología eta diskurtsoak desafiatzeko estrategia gisara izan dezakeen eraginkortasunean. Horretarako, ikerketaren foku nagusia Euskal Autonomi Erkidegoaren testuinguruan ipini dut, bertako erakusketen instalazioak eta hauek bisitariekiko sorturiko harremanak eta elkarreraginak ikertuz.

Lehenik, lan bibliografikoen azterketa kritikoaren bidez, komisarioek beren praktika burutzeko oinarritzat hartutako teoria eta artxiboen ulermenaren nolakotasunak aztertu ditut, baita artxibo eta museoen arteko harreman historikoan sakondu ere, ikerketa honetan aztergai dudan komisariotza joera, kronologikoki eta artearen esparruari dagokionez testuinguru zehatzago batean kokatzeko beharrari erantzunaz.

Honela, marko teorikoa osatu ostean eta ikerlanaren helburuak betetzeko asmoz, euskal testuinguruan gauzatutako kasu zehatzen azterketa burutu dut, haien bidez era berean erakusketa tipología honen genealogía posible bat aurkeztuaz. Behin eredu hauen ikerketa eginda ordea, komisarioek erakusketak taxutzeko izandako nahien eta azken emaitzen arteko talkak agerian gelditu dira, baita bereziki artxibo eta feminismoetatik hain gertu

El ámbito artístico ha sido prolífico en cuanto a las tentativas realizadas desde los posicionamientos feministas para cuestionar las narraciones hegemónicas y patriarciales. Durante los últimos decenios, la práctica curatorial se ha sumado a dicha tendencia, en especial utilizando el *modus operandi* del archivo como método expositivo. Es esta tendencia la que analizo en esta investigación, poniendo el foco en las claves y características de esta tipología, y en la eficacia que pueda tener para desafiar los discursos e ideologías que estructuran nuestro pensamiento centrándome en el caso específico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Primero, he analizado mediante el estudio crítico de trabajos bibliográficos las teorías sobre el archivo que más han sido utilizados por los comisarios; y por otra parte, la relación histórica que vincula el archivo con el museo, como respuesta a la necesidad de ubicar la tendencia a investigar en un contexto cronológico y artístico específicos.

Una vez desarrollado el marco teórico, he analizado casos de estudio concretos del contexto vasco y presentado una posible genealogía de esta tipología expositiva vinculada a dicho territorio. No obstante, una vez realizado el análisis, se han constatado varias incongruencias en las exposiciones entre los objetivos iniciales de los comisarios y los resultados; y se ha evidenciado la falta de la presencia del cuerpo, un elemento estrechamente vinculado tanto a los feminismos como al archivo. Así, comienza su búsqueda a través de dos vías: por medio de un caso práctico paradigmático: *Museum of Arte Útil*; y por otra parte, mediante teorías que a pesar de no haber tenido gran repercusión en el ámbito artístico vinculan el archivo con el cuerpo.

dagoen elementu baten falta sumatu ere: gorputzarena. Honela bada, gorputzaren bilaketari ekin zaio, batetik feminismoarekin loturarak gabeko kasu paradigmatiko baten azterketaren bidez: *Museum of Arte Útil* erakusketarena, eta bestetik, artxiboa eta gorputza uztartzen dituzten bestelako ideia eta teorien bitartez, nahiz eta artearen esparruan hain hedatutakoak ez izan.

Ikerketaren zati honetarako argi gelditu dira batetik, artxiboak erakusketetan erabiltzeak hainbat aukera eskaintzen dizkiela feminismoei (kontra-historioen narrazioak plazaratzea haiei egiazekotasuna eta legitimazioa atxikiaz, ezagutza kritikoa ahalbideratzea eta baita ikusgarritasun partziala eskaintza ere), baina aldiz bestetik, hainbat arazo ere sortzen dituela. Izan ere, artxiboak funtzional izateko, ikusleak erabiltzaile bilakatu behar dira, eta paradigma aldaketa hau burutzeak konplexutasun maila handia du, horretan zuenzuean instalazioak eragiten dutelarik. Ikusleen gorputzari erreparatu beharra zaio, honi garrantzi berezia atxikiaz gainera, eta horretarako diskurtso teoriko eta instalazio logika berriak beharrezkoak dira.

Hori dela eta, Bracha L. Ettingerren Teoria Matriziala oinarritzat hartuaz ekarpen teoriko berri bat proposatu dut feminismoetik artxiboen erakusketak komisariatzerako garaian aplikagarria dena, zeina praktikara ere eraman den bi erakusketen bidez. Proposamen teorikoa 3 kontzepturen baitan biltzen da: konfiantza, zaurgarritasuna eta sostengua/zaintza, eta aplikazio praktikotik emaitzak lortu ahal izateko soziologikoa esparruari dagozkien metodoen erabileraz jabetu naiz, besteak beste bisitariei eginiko inuesta eta behaketez.

Azken azterketa honek, ikuslearen paradigma aldaketa eta instalazioen erabateko egokitasuna lortzearen konplexutasun altua agerian uzteaz gain, Teoria Matrizialak arxiboari aplikatuta eskaintzen dituen aukerak ere plazaratu ditu. Batetik, museoetako erregulazio sistemak zalantzak jartzeko aukera eskaintzen du bisitarien paradigma aldatzearekin batera. Eta bestetik, ezagutza berriak gorputzetik gorputzera barneratzeko atea irekitzen du, baita museoetan gorputz maskulinoek izandako protagonismoa kolokan jartzeko ere. Honela, Teoria Matrizialean oinarritutako proposamen teorikoa, dokumentazio eta bisitarien gorputzen arteko erlazioak birformulatzeko lan tresna berri eta eraginkor gisara aurkezten da. Ikerlan honek, ondorioz, komisarioentzat argigarriak izan daitezkeen hainbat aspektu azpimarratu eta identifikatzeko aukera eskaintzen duela esan daiteke, komisariotzaren esparruan artxiboaren formulazio, kontzeptualizazio eta hurbilketetan ildo berri bat irekiaz.

Llegados a este punto, queda patente que el uso del archivo en las exposiciones genera varias oportunidades para los feminismos (genera contra-historias veraces y legitimadas, posibilita un conocimiento crítico y evita la visibilidad total), pero a la vez crea varios problemas. Porque para que el archivo produzca dichas oportunidades, el sistema tiene que ser funcional, y por ende, los visitantes tienen que convertirse en usuarios. Realizar este cambio de paradigma, sin embargo, no es una tarea sencilla. Hay que poner el foco en el cuerpo de los visitantes, y para ello son necesarios nuevos discursos teóricos y nuevas lógicas de instalación.

Así, propongo una nueva teoría basándome en la Teoría Matricial de Bracha L. Ettinger que se basa en tres conceptos principales: la confianza, la vulnerabilidad y el sostén/cuidado; y que además la he podido llevar a la práctica gracias a dos exposiciones. Los resultados de la misma los he obtenido por medio de encuestas y de la observación.

Esta experimentación práctica, aparte de dejar claro cuán complejo es cambiar el paradigma de los visitantes y lograr la idoneidad total de las instalaciones, ha servido también para aclarar las posibilidades que ofrece Teoría Matricial aplicadas al archivo. Por una parte, posibilita cuestionar los sistemas de regulación de los museos, así como cambiar el paradigma de visitante. Y por otra parte, facilita interiorizar nuevos conocimientos a través del cuerpo, y cuestionar el protagonismo que han tenido los cuerpos masculinos en estos espacios históricamente. De esta manera, la propuesta basada en la Teoría Matricial se presenta como una nueva herramienta eficaz para reformular las relaciones entre los documentos y los cuerpos de los visitantes. En consecuencia, se puede afirmar que este trabajo de investigación ofrece la posibilidad de subrayar e identificar varios aspectos que pueden ser reveladores en lo curatorial, abriendo una nueva vía en la formulación, conceptualización y acercamiento del archivo en el área del comisariado.